



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

“Giza eskubideak eta sorkuntza artistikoa”, 2024ko deialdia

**Antolatzaileak: Garapenean Laguntzeko Zerbitzua eta
Montehermoso kulturunea**



FUNTSATZEA

Garapenerako sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren alorreko ekintzen bitartez hirian elkartasunaren kultura sustatzen laguntzea da Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren helburu estrategikoetako bat, hartara, garapen-bidean dauden herrialdeetako errealitatea ezagutzera eman eta munduko pobrezia eta desberdintasunen arrazoiez ohartarazteko.

Herritarrei errealitatea ulertzen eta kontzientzia kritikoa bereganatzen lagunduko dieten gakoak eskaini nahi dira horretarako, hainbat ekintza eta programaren bitartez, beren bizimodua zalantzan jartzeko gai izan daitezen, eta, horrenbestez, jokabide-aldaketa susta dadin. Azken finean, pertsona aktibo eta arduratsuak izan daitezen, horrenbeste gizakik bizi dituzten bidegabekeria- eta desberdintasun-egoeren aurrean axolagabe agertuko ez direnak, geldirik geratuko ez direnak.

Giza eskubideen inguruko laguntza eta babesa emateari dagokionez, Gasteizekin harreman berezia duten herrialdeetan hainbat jardun burutu da azkenengo urteetan, batzuk giza eskubideak babesteko deialdiko proiektuak finantzatzeko emandako laguntzaren bidez, beste batzuk, berriz, bestelako hitzarmen edo ekimenen bidez. Horregatik, Garapen Lankidetzarako Zerbitzuaren Gida Planak (2022-2025) lehenetsutako lan-ildo estrategiko gisa mantentzen du Giza Eskubideen ikuspegia.

Mundu globalizatu eta interkonektatu honetan, hedabideei eta sare sozialei esker, gero eta begi-bistakoagoak dira planeta osoan milioika gizakiri eragiten dieten giza eskubideen urraketa larriak. Gainera, “Hegoaldeko herrialdeetan” gertatzen den funtsezko eskubideen urraketak ondorio jakinak ditu gure gizartean.

Montehermoso kulturuneak, bere aldetik, artegintzaren bitartez inguratzen gaituen errealitatea zalantzan jartzeko eta eragile guztien artean gogoeta eta ikaskuntza sustatzeko gaitasuna duten proiektuen garapena bultzatzen du.

Zeharkako ikuspegitik zertzen diren lan-prozesuak izan ohi dira, kultur eta gizarte-eragileei eta herritarrei modu aktiboan —gaitasunak eta ahaleginak batera bilduz— proposamen komun baten garapenean parte hartzera gonbit egiten dietenak.

Horrenbestez, bai Garapenean Laguntzeko Zerbitzuan, bai Montehermoso kulturunean, uste izan dugu egungo kulturgintza, bere adierazpide ugariekin —sorkuntza plastikoa, ikus-entzunezkoak, antzezte-arteak...—, berebiziko tresna dela elkarriketa eta gogoeta espazioak sustatzeko, eta agerian jartzeko zein egoeratan dauden giza eskubideak gaur egungo mundu honetan.

Testuinguru horretan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta abenduaren 10eko ospakizuna erreferentziatuz harturik, organizazio eta kolektibo sozial eta kulturelek egiten duten lana zabaldu eta herritarren sentsibilizazioa ahalbidetuko zuen sorkuntza artistikoko proiektu bat hautatzeko deialdia jarri zuten abian Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak eta Montehermoso kulturuneak 2013an —giza eskubideak babestu eta aldezteko nazioarteko elkartasunaren alorreko gizarte-eragileak eta hiriko kultur eragileak elkarlanean jarriko zituen proiektu bat—.

Deialdia horren hamaika edizio egin dira dagoeneko, 2013tik 2023ra bitartean, eta esku hartu duten gizarte-eragileek, talde artistikoek eta udal zerbitzuek horiek direla-eta



egindako balorazioek argi utzi dute ekimena arrakastatsua izan dela, bai esparru bateko eta besteko taldeen arteko lankidetzari dagokionez, bai gauzatu diren ekoizpenei eta ikusleek erakutsi duten interesari dagokienez.

Programaren emaitza onak eta parte hartu duten kolektiboen gogobetetasuna kontuan izanik, berriro ere, 2024rako, “Giza eskubideak eta sorkuntza artistikoa” deialdia egiten dute Montehermoso kulturuneak eta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, inplikaturako kolektiboen zenbait iradokizun oinarrietara ekarri ondoren.

OINARRIAK

1. DEIALDIAREN XEDEA

Kultur edo arte-ekintzen bitartez gaur egun munduan —bereziki Gasteizko kolektibo edo entitateek loturak dituzten lekuetan, edo horiek inplikaturak dauden problematikak dituztenetan— giza eskubideak zertan diren gogoeta eta azterketa kritikoa egiteko markoa sortuko duen **proiektu bat hautatzea** du xede Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren eta Montehermoso kulturunearen deialdi honek.

Ikuspegi malgua eta diziplinartekoa du deialdiak, eta honako hauek ahalbidetzera dago zuzendua:

- nazioarteko elkartasunaren alorreko organizazio edo kolektiboen eta sorkuntza artistikoaren adierazpenetako edozein —plastikoa, ikus-entzunezkoak, antzezte-arteak...— lantzen duten kultur eragileen arteko harremana,
- planetan gertatzen diren giza eskubideen urraketen gainean sentsibilizatzea herritarrek, sorkuntza artistikoaren bitartez, bidegabekeria horien aurrean gogoeta eta jarrera kritikoa garatzeko asmoz,
- Gasteizko organizazio sozialek nazioarteko elkartasunaren eta giza eskubideen alorrean bideratzen dituzten ekintzei buruzko gertuko eta benetako informazioa ematea herritarrei, bereziki hirian bizi diren pertsona edo komunitateen jatorri diren herrialdeei dagokienez.

Hautatzen den proiektua kontratatu egingo du Gasteizko Udalak, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 2023ko aurrekontuko 2450-4630-2799 “Komunikazio- eta sentsibilizazio-programak” partidaren kontura.

2. ESKATZAILEEN BETEBEHARRAK

Jarduteko erabateko gaitasuna duten eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekuean ez dauden entitate, erakunde, elkarte eta gizarte- nahiz kultur eragileek aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak.

Entitate eskatzaileak giza eskubideen inguruko sentsibilizazioaren esparruan ekintzaren bat gauzatu duela egiaztatu beharko du, eta deialdi honetan jasotzen diren baldintzak bete.



3. PROIEKTUEN ETA PARTE-HARTZAILEEN EZAUGARRIAK

3.1. Alderdi orokorrak

Proiektuan honako hauek parte hartu edo lagundu beharko dute, ezinbestean:

- Gasteizen nazioarteko elkartasunaren eta giza eskubideen defentsaren alorrean lanean diharduen erakunde edo kolektibo batek eta
- kultur organizazio, elkarte edo eragile batek.

Genero-analisiaren alderdiak jaso beharko ditu proiektuak, hartara nabarmentzeko nola giza eskubideen alorreko arazoez bereziki eragiten dieten emakumezkoek.

Aurkezten den proiektuak argitaragabea izan beharko du, eta deialdian ezarritako epeen barruan garatu beharko da.

Hautatzen den proiektua jendaurrean erakutsi beharko da, Montehermoso kulturunean, 2024ko abendutik 2025eko urtarrilera. Seguraski abenduaren 10ean inauguratuko da.

Azaroaren 25etik aurrera ekin beharko zaie muntatze-lanei, eta desmuntatze-lanak, berriz, 2025eko urtarrilaren 31a baino lehen bukatu beharko dira.

Jarraipen-batzordeak, egoki baderitzo, hautatutako proiektuan aldaketak egitea gomendatu ahal izango du, aurrekontua ukitu gabe.

3.2. Edukiak

Gai eta eduki hauei emango zaie lehentasuna:

- Jorratzen den gaiak zuzeneko lotura izan beharko du nazioartean kolektibo jakinek nahiz populazio osoek pairatzen dituzten giza eskubideen urraketekin, hala nola: babesik eza eta indarkeria jasaten duten haurrak, gatazka armatuen edo migrazioen ondorioak, krisi humanitarioak, eskubide ekonomiko eta sozialak, askatasun-gabetze bidegabeak; pertsonen salerosketa; arraza-, iritzi-, erlijio- edo sexu-arrazoiengatiko jazarpenak.

Lehentasunezko zat jotzen dira:

- Hirian bizi diren pertsona edo komunitateen jatorri diren herrialdeei eragiten dieten giza eskubideen alorreko problematikak.
- Azken hiru urteetan (**2021, 2022 eta 2023**) Gasteizko entitate edo kolektibo sozialek esku hartu duten giza eskubideen arloko proiektu eta problematikak.
- Emakumezkoek bereziki eragiten dieten giza eskubideen urraketekin zerikusia duten problematikak, eta emakumeen eskubideen berariazko edo zeharkako tratamendua.

3.3. Ekoizpena eta muntaketa

Proposamenak bereziki kontuan hartu beharko ditu Montehermoso kulturuneko espazioen ezaugarriak, baita zentroko baliabideak ere.

Erakusketak: Lehen solairua.

Bestelako jarduerak: Ortuño, Betolaza eta Salcedo aretoak eta lantegiak



(jardueraren arabera), aldez aurretik eskatuta eta espazio bakoitza erabilgarri dagoen datetan.

Era berean, proiektuaren behar teknikoek berri eman beharko da, Montehermosoko baliabideetara egokitzen den aztertzeko. Zentroak eskatu diren baliabide horiek ez baditu, antolatzaileek hartu beharko dituzte bere gain.

140 orduko mugaraino egongo da (8 orduko blokeetan) muntatzeko eta desmuntatzeko.

Montehermoso kulturuneko teknikariek zuzenean parte hartuko dute proiektuaren ekoizpenean, hura sustatzen duten elkarte eta kultur eragileen lana errazte aldera.

Sustatzaile horiek, berriz, solaskide bakar bat izendatu beharko dute Montehermoso kulturuneeko lantaldearekin koordinatzeko.

3.4. **Jarduera osagarriak**

Proposamen artistikoaz gain, jarduera osagarrien programa bat ere jaso ahal izango da eskabidean —proiektu artistikotik bereizitako jarduera osagarriak, proiektuaren gaiarekin zuzenean lotuak—. Proiektu artistikoarekin batera egin beharko dira jarduera horiek, eta, aukeran, Montehermoso kulturunean.

Jardueren edukia eta gaiak zehaztu beharko dira proposamenean, baita parte hartuko duten pertsonak eta gutxi gorabeherako kostua ere.

Jarduera horien kostuak ezingo du izan 4.500 eurotik gorakoa (BEZa barne), eta ez da izango proiektu artistikoa egiteko kontratuaren kontura, baizik eta, halakorik izanez gero, Gasteizko Udalak kontratatuko ditu.

Nahiz eta proiektu artistikoa hautatzeak ez duen berekin ekarriko proposatutako jarduera osagarriak egiteko obligazioa, bai baloratuko da horien egokitasuna, eta izan dezaketen inpaktu soziala.

2024ko irailaren 30erako itxi beharko da jarduera osagarrien behin betiko programazioa, eta horietatik sortzen diren premia teknikoek aurreikuspena egin.

-

4. **ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA**

Deialdiaren zenbatekoa **14.999,00 euro + BEZ (% 21)** izango da, eta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 2023ko aurrekontuko 2450-2391-2-2799 “Komunikazio- eta sentsibilizazio-programak” partidaren kontura joango da.

Proiektua ekoizti eta gauzatzetik eta Montehermoso kulturunean erakusgai jartzetik sortzen diren gastuak barne hartu beharko ditu zuzkidura horrek.

Gasteizko Udalak, bere aldetik, kostu hauek hartuko ditu bere gain, 2450-2391 2-2799 “Komunikazio- eta sentsibilizazio-programak” partidaren kontura:

- publizitatearen eta zabalkunde instituzionalaren kostuak, hala nola hirian egiten den publizitatea, gonbidapenak, aretoko orriak eta Montehermoso kulturunean erakusketa identifikatzeko biniloa,
- aretoetako arreta- eta zaintza-langileak.



Era berean, Udalak bere gain hartu ahal izango ditu:

- muntatze- eta desmuntatze-lanen ondorio diren beste kostu batzuk, gehienez 3.500 euro arte (BEZa barne);
- halakorik izanez gero, 3.4 atalean adierazitako jarduera osagarrien kostuak, gehienez 4.500 euro arte (BEZa barne).

Montehermoso kulturuneko tresneria teknikoa eta giza baliabideak gehituko zaizkio horri, erabilgarri badaude eta proiekturako egoki badira.

Kontratuari dagozkion ordainketak honela egingo dira:

- % 60 kontratua, izenpetzen denean,
- Gainerako % 40, proiektua burututakoan.

Batean nahiz bestean, faktura aurkeztu beharko da.

5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea, behar bezala beteta.
- Sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ezaren adierazpena.
- Proiektuaren titular den pertsona edo entitatearen nortasun-agiriaren edo baliokidearen fotokopia.
- Proiektuaren titular den pertsona edo entitatearen ibilbidea edo curriculuma.
- Beste batzuekin batera aurkeztuz gero, entitatearen nahiz haren ordezkariaren ibilbide edo curriculumaz eta datuez gain, harekin batera parte hartzen duten agenteen gaineko informazio osoa ere aurkeztu beharko da.
- Proiektuaren dosierra, hauek biltzen dituena:
 - Proiektuaren izenburua eta garapena.
 - Behar teknikoak.
 - Gauzatzeko egutegia.
 - Gutxi gorabeherako aurrekontu banakatua, finantziario propioa izan lezaketen kontzeptuak zehazten direlarik eta orobat bereizten honako hauei dagozkien kostuak:
 - Ikerketa eta diseinua.
 - Ekoizpena.
 - Muntatzea eta desmuntatzea.
 - Komunikazioa.
 - Inaugurazioa.
- Jarduera osagarrien proposamena

Eskabideari ez bazaizkio eransten atal honetan adierazitako agiriak, hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari egoera hori konpon dezan. Hala egin ezean, bertan behera utzitzat joko da eskabidea.



6. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA

2024ko apirilaren 30era artekoa izango da proiektuak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkeztea:

- Aurrez aurre: Herritarrei laguntzeko bulegoetan.
- Online: [Erregistro elektronikoa bitartez](#).
- Legean nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein bitarteko baliatuz.

7. PROIEKTUAK BALIOETSI ETA HAUTATZEA

Hauek osatuko dute hautaketa-batzordea:

- Kultur Zentroetako burua,
- Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko teknikari arduraduna,
- Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko teknikaria,
- Kultur Zentroyen Ataleko teknikaria,

Garatuko den proiektua hautatzeko, alderatu egingo dira aurkeztutako proposamenak, balioespen-irizpide hauek aintzat hartuta:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Edukiak	12
• Gasteizko entitate edo kolektibo sozialek azken hiru urteetan esku hartu duten giza eskubideen arloko proiektu eta problematikekiko lotura.	6
• Hirian bizi diren pertsona edo komunitateen jatorri diren herrialdeei eragiten dieten giza eskubideen alorreko problematikak.	2
• Emakumezkoei bereziki eragiten dieten giza eskubideen urraketak.	4
Proiektu artistikoaren interesa eta kalitatea	36
• Giza eskubideen ikuspuntutik	8
• Genero-ikuspegia izatea.	4
• Artearen ikuspuntutik	24
Proiektuaren zehaztasuna, koherentzia eta bideragarritasuna, aurkeztutako dosieraren eta dokumentazio osagarriaren argitara: helburuak, gauzatzeko denbora eta baliabideak.	18
Jarduera osagarrien interesa eta kalitatea	6
Hiriko organizazio edo kolektibo sozialen eta kultur eragileen arteko lankidetzaren edo harreman-maila, prozesu osoan —Hegoaldeko artista edo eragileen partaidetza barne—.	10



IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Proposamenaren inpaktu soziala: bereziki, partaidetza edo hiriko beste kolektibo, ikastetxe, prestakuntza-zentro eta abarrekiko interakzioak.	8
Hirian bizi diren jatorriko herrialdeko pertsona edo komunitateen partaidetza.	6
Eskatzaileek nahiz proiektuan lagunduko duten kultur eragile edo entitateen ibilbidea, sentsibilizazioaren arloan, hirian.	4
PUNTUAK, GUZTIRA	100

Bereziki aintzat hartuko da proiektua landu eta gauzatzeko prozesu osoan zenbaterainokoa den haren eragile diren hiriko talde edo organizazio-sareen eta gizarte- eta kultur eragileen arteko lankidetzak, eta proposamen guztientzat izango da hori bete beharreko baldintza. Orobat balioetsiko da garatze-bidean dauden herrialdeetako artistek, kultur eta gizarte-eragileek edo ikastetxe nahiz prestakuntza-zentroetako ikasleek duten partaidetza.

Hautaketa-batzordeak eskatzaileak elkarrizketatu ahal izango ditu, edo haiei buruzko informazio osagarria eskatu, aurkeztutako proposamenak hobeto ebaluatzeko.

Proiektuetako batek ere ez badu puntuaren % 50 lortzen, deialdia esleitu gabe utzi ahal izango du hautaketa-batzordeak —zati bat edo osorik—.

8. DEIALDIAREN EBAZPENEA

Hautaketa-batzordeak deialdi honetako 7. puntuan zehaztu diren irizpideak aintzat harturik aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztu diren eskabideak eta agiriak.

Eskabideak balioetsi ondoren, emaitzaren berri emango du batzordeak, gehienez bi hilabeteko epean —eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik—.

Idatziz jakinaraziko da ebazpena.

9. KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA

Proiektua behar bezala garatzen dela bermatzeko, Montehermoso kulturunearekin koordinatu beharko da. Bertako langileek behar den aholkularitza teknikoa eskainiko dute, proiektua egituratzeko eta zentroko baliabideetara egokitzeko.

Orobat aurreikusten da jarraipen-batzorde bat sortzea, hautaketa-batzordearen osaera berarekin.

Batzorde horrek behar adina bilera eskatu ahal izango dizkio kontratatzen den entitateari, kontratuan jasotzen diren zehaztapen eta betebeharrak oro behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Halaber, batzorde horri dagokio kontratua gauzatzeko orduan egiten diren egokitzapen- eta aldaketa-proposamenak baimentzea, eta proiektuaren kanpo komunikazioa gainbegiratzea.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe esleipena bertan behera utzi ahal izango da, batzordeak txostena egin ondoren.



10. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Deialdi honetan hautatzen den proiektuaren titular den entitate edo pertsonak konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- a_ Hautaketa-batzordearen erabakia onartzekoa.
- b_ Proiektua deialdian zehazten den epean eta aurreikusten diren baldintzetan gauzatzekoa.
- c_ Gehienez hamar eguneko epean, onartzen duela idatziz berrestekoa.
- d_ Gasteizen edo Araban bulegoa izatekoa, proiektua gauzaten den bitartean, proiektua gauzatzearen inguruko koordinazioa errazteko.
- e_ Jarraipen batzordeak informazio edo agiririk galdatuz gero, horri erantzutekoa, eta, era berean, proiektuaren komunikazioan Gasteizko Udalaren irudi korporatiboa erabili eta agerian jartzearen inguruan ematen zaizkion jarraibideak oro betetzekoa.
- f_ Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada, horren berri idatziz ematea.
- g_ Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatekoa.
- h_ Proiektuaren komunikazio egokirako beharrezko egokitzen diren informazioa eta dokumentazioa ematekoa, eta, behar izanez gero, proiektuan ekoizten diren irudiak jendaurrean erreproduzitu eta erakusteko eskubidea Gasteizko Udalari lagatzekoa.
- i_ Programa bukatu ondoren, bi hilabeteko epean, egindako lanaren oroitidazkia aurkeztekoa —edukiak kontratuan zehaztuko dira—.

11. DOKUMENTAZIOA ITZULTZEA

Hautatu gabeko proiektuak itzuli egingo dira proiektuaren titularrak hala eskatuz gero, erabakiaren berri jakinarazi ondorengo 30 egun naturaletan. Denbora hori igarotzen delarik, gainerako proiektuak txikitu egingo dira.

12. OINARRIAK INTERPRETATU ETA ONARTZEA

Oinarri hauek interpretatzean edozein zalantza sortzen delarik ere, jarraipen-batzordeko kideek ebatziko dute.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da horiek bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.

Informazio gehiago:

Zerbitzua	Harremanetarako:	Tel.	E-posta
Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua	Monika Belinchón	945161654	mbelinchon@vitoria-gasteiz.org



Zerbitzua	Harremanetarako:	Tel.	E-posta
Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua	Raquel calvo	945 16 15 77	rcalvo@vitoria-gasteiz.org
Montehermoso kulturunea	Luis María Pascual	945 16 16,16 Luzap.: 6490	lpascual@vitoria-gasteiz.org
Montehermoso kulturunea	Iban Beltrán de Nanclares	945 16 16,16 Luzap.: 6492	ibeltrandenanclares@vitoria-gasteiz.org